



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2010ICGO0009

**Eguna:** 2010-11-19

**Ordua:** 09:00

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- |  |            |
|--|------------|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea            | HAMAIKABAT |
| - Eloy Bazan Bazan                           | HAMAIKABAT |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo               | EAJ/PNV    |
| - M <sup>a</sup> Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV    |

#### Bertaratu ez direnak

-

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2010eko uztailaren 20ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 20 de julio de 2010
Kale Nagusia 25eko dirulaguntza. Arkitektoaren txostena	2	Subvención Kale Nagusia 25. Informe del arquitecto
Dirubilletako kudeaketa: ekitaldi itxiak eta onarturiko eskubideak deuseztatzea	3	Gestión recaudatoria: ejercicios cerrados y anulación de derechos reconocidos
Foru Enparantzako urbanizazioa: udal aparejadorearen txostena	4	Urbanización Foru Enparantza: informe del arquitecto técnico municipal
2010eko kirol kudeaketa: gastua baimentzea	5	Gestión deportiva 2010: autorización de gasto
Finantza eta abalen inguruan Idazkariaren txostena	6	Informe del Secretario en relación a las finanzas y avales.
Emakume eta gizonen berdintasun plana	7	Plan de igualdad de mujeres y hombres



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>Bereciartua Sagardotegia: handitzearen legeztapena</b>	<b>8</b>	Sidrería Bereciartua: Legalización ampliación
<b>Informazio, galdera-erreguak</b>	<b>9</b>	Información, ruegos y preguntas

### Esan-eginak eta erabakiak

**1. 2010eko uztailaren 20ko aktaren onarpena**

Akta, aho batez, onartzen da.

**1. Aprobación del acta de 20 de julio de 2010**

El Acta es aprobada por unanimidad.

**2. Kale Nagusia 25eko dirulaguntza. Arkitektoaren txostena**

Tokiko gobernu batzarrak, aho batez, erabakitzen du udal arkitektoak eginiko txostena berrestea, eta Kale Nagusia 25 zenbakiko erkidegoak eginiko dirulaguntza eskaera deuseztatzea, 2009ko abenduaren 23ko datarekin hartutako erabakia bertan behera utziaz.

**2. Subvención Kale Nagusia 25. Informe del arquitecto**

La Junta de gobierno local, por unanimidad, aprueba ratificar el informe del Arquitecto municipal, y desestimar la petición de subvención formulada por la Comunidad de Kale Nagusia 25, dejando sin efecto el acuerdo adoptado con fecha 23 de diciembre de 2009.

**3. Diru-bilketako kudeaketa: ekitaldi itxiak eta onarturiko eskubideak deuseztatzea**

Ekitaldi itxietako aitortutako eskubideen diru-bilketari buruzko txostena idazkari kontu-hartzaileak azaldu eta gero tokiko Gobernu Batzordeak, aurkeztutako txostenean zehaztutako 65.861,66 euro balio gabetzea onartu du.

**3. Gestión recaudatoria: ejercicios cerrados y anulación de derechos reconocidos**

La Junta de gobierno local tras exposición del informe del interventor en relación a la gestión recaudatoria de los derechos reconocidos de ejercicios cerrados, aprueba la anulación de 65.861,66 euros detallados en el informe presentado.

**4. Foru Enparantzako urbanizazioa: udal aparejadorearen txostena**

Foru Enparantzako urbanizazio-lanen likidazioari buruz udal-aparejadoreak egindako txostena aztertu eta gero, tokiko Gobernu Batzordeak honako hau onartu du:

**4. Urbanización Foru Enparantza: informe del arquitecto técnico municipal**

A la vista del informe emitido por el aparejador municipal en relación a la liquidación de la obra de urbanización de la plaza de los Fueros, la Junta de gobierno local aprueba:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

1. Obra-zuzendaritzak aurkeztutako 115.886,12 euroko obren likidazioa ezestea, eta erabaki hori jakinaraztea obra-zuzendaritzari zein CODOSA enpresa esleipendunari, hori guztia horrekin batera doan aparejadorearen txostenaren arabera.
2. Obra-zuzendaritzari horri buruzko beste likidazioa emateko eta txostena egiteko eskatzea.
3. Obra-likidazio gisa 43.556,28 euroko gastua onartzea, aparejadorearen txostenaren arabera eta CODOSA enpresari zenbateko hori ordaintzea.

### **5. 2010eko kirol kudeaketa: gastua baimentzea**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki du Osoko Bilkurara eramatea 2010eko kirol-kudeaketaren kostuari dagokion 312.289,15 euroko gastua onartzeko proposamena.

### **6. Fidantza eta abalen inguruan Idazkariaren txostena**

Tokiko Gobernu Batzordeak udalaren idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena azertu eta gero, 2005. urtea baino lehenagoko abalak eta fidantzak ofizioz itzultzeko espedientea hasia erabaki du, eta horretarako hirigintzako sailera bidaliko da zerrenda, egutegiko 10 egun emanaz eta bitarte horretan ez bazaio itzultzeari eragozpenik jartzen, justifikatutako atxikipenik ez duten 2005. urtea baino lehenagoko fidantzak eta abalak itzuliko dira.

### **7. Emakume eta qizonen berdintasun plana**

Tokiko Gobernu Batzordeak 3.600 euroko gastua onartu du Eguialak udala

1. Desestimar la liquidación de obras presentada por la dirección de obra por importe de 115.886,12 euros, y notificar este acuerdo tanto a la dirección de obras así como a la empresa adjudicataria CODOSA, todo ello en base al informe del aparejador municipal que se les acompaña.
2. Solicitar a la dirección de obra emita nueva liquidación e informe al respecto.
3. Aprobar el gasto de 43.556,28 euros como liquidación de la obra, conforme al informe del aparejador y abonar dicho importe a CODOSA.

### **5. Gestión deportiva 2010: autorización de gasto**

La Junta de gobierno local por unanimidad acuerda elevar al Pleno la propuesta de aprobación de gasto has un límite de 312.289,15 euros correspondiente al costo de la gestión deportiva 2010.

### **6. Informe del Secretario en relación a las fianzas y avales**

La Junta de gobierno local a la vista del informe emitido por el Interventor municipal, acuerda iniciar el expediente de devolución de oficio de los avales y fianzas anteriores al 2005, para lo que se remitirá la relación a urbanismo concediendo 10 días naturales en los que si no se manifiesta reparo a la devolución, se procederá a la devolución de las fianzas y avales anteriores al 2005 que no tengan justificada ninguna retención.

### **7. Plan de igualdad de mujeres y hombres**

La Junta de gobierno local aprueba el



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

aholkatzeko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun Planari buruz. Kontratua urtebetekoa izango da, 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du, eta ezin izango da luzatu.

gasto de 3.600 euros para que Eguala asesore al Ayuntamiento en el Plan de Igualdad de Mujer y Hombres. El contrato será de 1 año, con vigencia desde el 1 de enero de 2011 a 31 de diciembre de 2011, y no será prorrogable.

### **8. Bereziartua Sagardotegia: handitzearen legezapena**

Tokiko Gobernu Batzordeak Bereziartua sagardotegian lizentziarik gabe eraikitako eraikinen legezapena baimentzea onartu du, baina horretarako lehen aurkeztutako proiektua osatu behar du irizpenean bildutako xehetasunen arabera.

### **8. Sidrería Bereziartua: legalización ampliación**

La Junta de gobierno local aprueba autorizar la legalización de las edificaciones construidas sin licencia en la sidrería Bereziartua, debiendo cumplimentar previamente el proyecto presentado, conforme a los detalles contenidos en el dictamen.

### **9. Informazio, galdera-erreguak**

Aho batez onartutako premiazko deklarazioa egin eta gero, gai-zerrendan jaso da Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko MA 02 "Torrua Zahar" birpartzelazioko proiektuaren eta Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko HIE 19 "Ubarburu" birpartzelazioko proiektuaren jendaurrean erakusgai jartzeko epearen aldaketari buruzko txosten juridikoari buruzko irizpena, eta horregatik honako puntu hauek onartu dira:

### **9. Información, ruegos y preguntas**

Previa declaración de urgencia aprobada por unanimidad, se incorpora en el orden del día el dictamen relativo al informe jurídico sobre modificación de plazo de exposición pública del proyecto de reparcelación del MA 02 "Torrua Zahar" del PGOU de Donostia del AIU 19 "Ubarburu" del PGOU de Astigarraga, por el que se acuerdan los siguientes puntos:

Lehena.- Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko MA 02 "Torrua Zahar" Egikaritze Unitateko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onarpen-erabakia jakinaraztea orain arte jakinarazpena jaso ez duten eremuko jabe guztiei.

Bigarrena.- 45 eguneko epea eman euren eskubideak defendatzeko egokitzat hartzen dutena alegatzeko.

Hirugarrena.- Birpartzelazio Proiektuaren hasiera onartzeko erabakia jendaurrean erakusgai jartzea Gipuzkoako Aldizkari

Primero.- Notificar el acuerdo de aprobación inicial del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución MA 02 "Torrua Zahar" del PGOU de Astigarraga a todos los propietarios del ámbito que no han sido notificados hasta la fecha.

Segundo.- Otorgar el plazo de 45 días para que puedan alegar lo que estimen pertinente en defensa de sus derechos.

Tercero.- Publicar el acuerdo de aprobación inicial del Proyecto de Reparcelación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Ofizialean, udaletxeko iragarkitaulan eta hedadura arrunteko Gipuzkoako egunkari batean, alegazioak egiteko 45 eguneko epea emanez.

Laugarrena.- Donostiako Udalari Erabaki hau jakinaraztea.

un periódico de Gipuzkoa de difusión corriente otorgándose el plazo de 45 días para que puedan formular alegaciones.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

Tokiko Gobernu Batzordean idazkari kontu-hartzaileak Administrazio Klausula Partikularren Plegua aurkeztu du, eta horiek arautuko dute "Astigarragako Kultura Etxe berria eraikitze Oinarrizko Proiektua eta Egikaritze Proiektua" idazteko proposamen teknikoaren hautaketarako egingo den lehiaketa.

Pleguaren edukia xehetasunez azaldu eta gero, Batzordeko kideei eman zaie eta gaia Batzordeko izapidearen aurretik aztertze geratu da

El Secretario presenta en la Junta de gobierno local el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regularán el concurso que se desarrollará para la selección de la propuesta técnica para la redacción del "Proyecto Básico y el Proyecto de Ejecución para la construcción de la nueva Casa de Cultura de Astigarraga".

Tras exposición detallada del contenido del Pliego, se facilita a los miembros de la Junta, quedando el tema para estudio previo al trámite de Comisión.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2010eko azaroaren 19an

**Xabin Olaizola Lasa**  
**Idazkaria**